

Lefebvre eta beste ortodoxoak

Deia, 1977-07-03.

Ezaguna da, eta iskanbila haundia sortu duena, Marcel Lefebvre gotzaiak Elizari egin dion desafioa.

Lehenagoak gutxi ez direla, orain Aita Santuak eman dion aginduaren aurka, beste 14 apaiz eta 22 behediakono ordenatu ditu Suizako Seminario batean.

Hara honen argudioa: Hau ez da *gure* Eliza, aldatu egin digute; eta guk ez dugu *egitazkoa* den Eliza birrindu nahi. "Jesukristok berak jakinarazi zuen –esan du Lefebvre-k elizkizun hontan– otsoak eta lapurrak Eliza barruan egongo direla; guk otso eta lapur eta mertzenario horiei eskua eman behar ote diegu?".

Eskua zabalik eta zai daukan hau Aita Santua da.

Lefebvre bezalako ortodoxoak badira non nahi. Baita *gure* artean ere. Ez naiz erlijioaz bakarrik ari; arazo guzietan ispirituari baino hitzari eta axalekoari begira dauden horietaz ari naiz. Errazagoa da, noski, hitz eta rito konkretoari behin-betiko, santa sekula, lotuta geratzea, ispiritu iheskorri ahaleginean jarraiez bizitzea baino.

Ortodoxoak, integrista batzuk dira.

Integristak, mundu osoa printzipio simple eta *betiko* batzuren bidez harrapatu nahi du, eta behin-betiko.

Ortodoxo hau, egunero gaurkotzen joan behar duen instituzio bizi bati lotu beharrean, berekoikeriari lotutako ortodoxo alper bat da.

Horiekin ez genuke atzoko irakatsiekin biharko mundua egingo; atzokoan eta betiko geratuko ginategi.

Betiko pakean.

Amen.